2022ko maiatzaren 30a

BEGOÑAZPI

ASTEKARIA

begoñazpi ikastola

GELAN IKASITAKOA BIZIZ

URTEERAK, TEORIATIK PRAKTIKARA JAUZIA EGITEKO OINARRI-OINARRIZKOAK DIRA

begoñazpi eredua • modelo begoñazpi • begoñazpi model

INICIATIVA STEAM EKIMENA - 100% STEAM
Iniciativa STEAM euskadi Ekimena
EES_2020

URTEERAK, PROIEKTUEN AMAIERA BIKAINA

SANTIMAMIÑEKO KOBARA

CLICK

Aste honetan 5 urteko umeak Santimamiñeko Kobara joan jakuz. Gelan, "Aurrera zein atzera, denboran bidaiatzera" proiektua lantzen dagozala eta, denboraren kontzeptua landu asmoz, hainbat arotara jo eta bidaiatuko dabe. Oraingoan, kobetara joan jakuz, historiaurrera.

ZUGAZTIETAN IZAN GARA

CLICK

Aste honetan DBH 1.mailako ikasleak Zugaztietako aterpetxean izan dira. Eguraldia lagun izan ez badabe be, hainbat ekintza egiteko gogoa izan da nagusi egonaldian. Meatzaldeko historia zein istorio interesgarriak entzun eta ikasi ezeze, bertako parajeak ezagutu eta euskal kulturagaz lotura zuzena daben jarduerak be burutu dabez.

RAFAEL MIKOLETA IPUIN LEHIAKETAN, GURE IDAZLEA, IRABAZLE

Aurtengo edizioan, DBH 1D gelako Paula Arostegi ikasleak, "Zergatik nik?" izenpean aurkeztutako lanagaitik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek osatzen daben C modalitatean, lehenengo saria irabazi dau.

CLICK

ESKOLA-JAZARPENARI BURUZKO TAILERRA

CLICK

Aste honetan, Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleok eskola-jazarpenaren gaineko tailerra eta hitzaldia izan dogu. Ikastolara, A.E.P.A.E. alkarteagaz lanean dagozan psikologa bi etorri jakuz, Raquel eta Adriana. Eskola-jazarpena zer dan eta eskola-jazarpenaren zenbait profil landu ezezik, hainbat dinamika be egin dogu.